

Nafarkaria

• ostirala • 1999ko ekainaren 11


Egunkaria

Gehigarri honetan

Uitzi • Iruñeko Udalak bertan antolatu du udako kanpaldia.
Estela Weldon • «Bortxa belaunaldiz belaunaldi igarotzen da».

Herri nabarrean

sortutako



disko nabarra

Erriberako hiriburuan sortutako Nomadas musika taldea lehen diskoa grabatzen ari da Iruñerrian, Espartza herrian. Tuteran biltzen diren kulturetako kidez osatua -ijitoak, magrebiarrak, euskaldunak eta espainiarrak-, beren lanak herri nabar baten doinu nabarrak jasoko ditu. Finean, herri kulturak uztartzen eta hurbiltzen saiatu dira joan den irailean abiatu zuten egitasmoan.

Uitzi •

Iruñeko Udalaren udako kanpaldia

Orixenea etxean bilduko dira 8 urtetik 10era bitarteko hainbat haur

Altsatsuko Santo Kristo de Otadian egin asmo zuen Udalak kanpaldia, baina han Kosovoko errefuxiatu albaniarrek izango direnez, Uitzin egingo dute gaztetxoei natura ezagutarazteko ekimena.



Orixenea etxean izanen dira aurtien udako egonaldiak.

• ARTXIBOKOA

DUELA URTE ASKO HASI ZEN Iruñeko Udaleko Gazteria eta Kirol Saila udako kanpaldiak antolatzen. Adin guztietarako ekitaldiak izan ohi dira, eta, Nafarroan ez ezik, kanpoan ere egiten dira. Aurtien beste egoitza bat aukeratu behar izan dute, halabeharrez, horietako ekitaldi baterako. Izan ere, zortzitik hamar urtera bitarteko hoge gazte inguru bildu asmo zituzten Altsatsuko Santo Kristo de Otadia erresidenzian. Baina han egunotan maizter bereziak daude, Kosovotik etorritako hainbat errefuxiatu. Hori ikusirik, Uitziko Orixenea leku egokia izan zitekeela otu zitzaizen

Gazteria Sailekoei. Bazekiten lehendik ere Orixen idazle handiaren etxea izandakoan egonaldiak antolatzen direla: barnetegi moduan aritu izan zen lehenik, natur eskola moduan gero.

Orixenea Uitzin erdian dagoen etxe handi eta zaharra da. Kanpoaldeko itxura ikusita, ordea, bestela dirudi, duela gutxi konpondu baitute. Nikolas Ormaetxea Orixen haurtzaro eta gaztaroaren lekuko izandako etxeak hainbat aldaketa izan ditu azken urteetan.

Uztailaren 13tik aurrera

Uztailaren 13an iritsiko dira haurrak Uitzira. Horretarako ez dago inolako baldintzarik, egin behar den gauza bakarra matrikulak balio dituen 19.000 pezetak ordaintzea da. Bestalde, Osasunbideako txartelaren fotokopia aurkeztu behar da, gurasoek baime-na eman duten seinale izango den sinadurarekin batera. Izena emateko epea zabalik dago jadanik, Gazteriaren Etxean. Argibide gehiago: 948-17 48 53 telefonoan.

Uitziko egonaldirako 20 plaza badira, baina guztira, antolatutako ekitaldietan, 400 bat lagunek hartuko dute parte. Astebetetz, Larraun bailara eta ingurunea ezagutu ez ezik, jende gehiagorekin bizitzeko sortzen diren arazotxoei aurre egiten ere ikasiko dute. Bestalde, antolatzaileek ba omen dute uitziarren izaera jatorrari buruzko berriak, eta ziur daude herriarrek bizitzeak bere fruituak emango dituela.

→ Urko Aristi

Betelu

Onartu dute herrigintza plana

PLAN URBANISTIKOA EDO HERRIGINTZAKOA martxan jarri zutenetik, hainbat istilu izan da Betelun. Zinegotzien dimisioak, mehatxuak eta irainak izan dira tartean. Herriarrek ehun alegazio baino gehiago aurkeztu arren, Udalak, Jesus Gonzalez alkatea buru duela, onartu egin du herrigintza plana.

Joan den ostegunean eman zion Udalak baiezkua herrigintza planari. Aipatzekoa da, ordea, alkateak berak aukeratu-tako zinegotziak direla egungo guztiak, lehengoek dimisioa aurkeztu baitzuten. Izan ere, iazko apirilaren 8an behin-behineko baietza eman zitzaionetik aurrerako ugarri izan ditu plan horrek. Kale berrien zabalera gehiegizkoa, eraikitzeke egokiak ez ziren lurak horretarako gordetzea... Ugariak dira herriarrek planari ikusten dizkieten akatsak. 235 sinadura lortu zituen orduan sortu berria zen Herrigintza Planaren Aurkako Plataforma. Baina maiatzeko sinadurak aurkezteko orduan ez zegoen haiek onar zitzakeen udalbatzarrik.

Orain, Gobernuak plana onartzea baino ez da falta. Hala ere, igandeko hauteskundeetan ostean sor daitekeen udal berriak izango du plana atzera botatzerik.

→ Urko Aristi

muga enea

MIKEL REPARAZ



Galipot eta ikatzen keaz beltz, haur aldrak azken trenarekin joan ziren Altsasuko Ezker Ibarretik. Teknologia dieselak eraman zituen, bapore eta elektrikoak aurrea harturik. Ordea, haur musubeltz haien algarak etortzen zaizkio artean ere Robustianori, Patxiren taberna aurretik pasatzen deneko. Ilusioa. Hamelingo flautajoleak aspaldi eraman baitzuten umeak Carbonillatik; eta arratoiak bertan utzi.

Robustiano eta Damasa estazio auzoko zaharrenak direlako omendu dituzte ikatz hautsaren barrioko festetan. Carbonillan. Haien sorterrian. Ezezagunez inguraturik. Ferrokarrilaren seme-alabek ihes egin baitzuten estazioetik, Castejon-Altsasua bidearen beheakadaz geroztik. «Altsasuko burni korapiloa ez da eta lehen zena», diote zaharrenek. Lehen ehunka, milaka

La carbonilla

persona gelditzen zirela eguneroko estazioan; zientzako lokomotore, milaka bagoi. Iragan mendean lehenbiziko lurren makina iristearrekin eraikitako Etxe Handia hamabi familia eta dozenaka haurren babesleku zen tenorean guztiek egiten zutela lan, baita hamar urteko mutikoei ere; baina ferrobioariaren emazteak herri osoaren inbidia zen josteko makina zuela etxean. Frantziako auskalo zein hiritatik ekarria. «Eta burniaren langileok ez ginen gainontzeko herriarrek bezalakoak», diote tren-gizon zaharrek. Haietarik franko Palentziatik eta Burgostik eta Erriberatik etorriak baitziren. «Carbonillako herriarrek ginen». Eta erosketak Ultramarinos Argomaniz dendan egiten zituzten, eta leregiren barberian ebakitzen zuten ilea, eta Ferrokarrilaren kofradiaren kide ziren denak. Ohe eske Mendia

ostatura jotzen zuten negozio gizon haiek izan ezik. Haiek paseran izaten baitziren. Gau baterako baino ez.

Orain, Carbonilla auzoak ferrokarrilaren, iraultza sozialaren eta Coca-Colaren mendeko azken festak ospatu ditu. Eta haurrak falta direla sumatu du Robustianok. Hark ez daki, ordea, haur haiek guztiak helduak direla egun, eta bihotzean daramatela artean ere estazioaren auzoa. Bihotzean, bai, muturretatik urrutik badaezpada ere. Ume musubeltz koadrila joan den aste-buruan itzuli zen Altsasun bazarera, Ameztien magaletara. Banan-banan eta seme-alaba orraztuen eskutik. Eta ilaran eraikitako etxebizitza berrien atzean, Patxiren taberna aurrean, berbenaren bonbilla izekiak aurkitu zituzten. Galipot eta ikatzen keaz beltz.

Iruñea

Nafarroako
historia eta
kultura
aztergai

ITURRALDE KULTURA TALDE-
ak Nafarroako historia
eta kulturaren inguruko
hitzaldiak antolatu ditu
heldu den asterako. Le-
henengo mintzaldia as-
telehenean izanen da:
*Euskararen historia bel-
tza*, Joan Mari Torreal-
daik emana. Hurrengo
egunean, Juan Antonio
Urbeltzek *Carnavales y
fuegos de San Juan. Una
visión simétrica de la
Fiesta* hitzaldia emanen
du. Asteazkenean leku-
koa Mikel Iriondok har-
tuko du: *El origen de los
vascos. Una aproximación
desde la Antropología
Física*. Ostegunean,
*Navarra y el País Vasco.
Proyección conjunta del
Foralismo en los siglos
XVIII y XIX* gaia landuko
du Rodrigo Rodríguez
Garrazak. Azken hitzal-
dia Xacobe Bastidak es-
kainiko du: *Autodetermi-
nación, nacionalidades y
Constitución*. Hitzaldiak
Erraldoien Txokoan izan-
en dira, 20:00etan.

Bestalde, Noaingo Gu-
dua gogoratzeko ekital-
diak antolatu ditu elkar-
teak, Getzen, ekainaren
27an. 10:00etan Nafa-
rroako Errege-Erreginen
Jauregian pregoia iraku-
rri eta Getze aldera abia-
tuko dira, gudua gogora-
tzen duen oroitariraino.

→ Irene Arrizurieta

Altsasu •

Eskolen erabilera eztabaidagai

Domingo Lumbier eskolen etorkizuna konpontzeko dago

**Domingo Lumbier
eskolen erabilera edo
etorkizunaren
inguruan hainbat
ekitaldi antolatu ditu
Fundamento Orain
taldeak. Eztabaidak
irekita jarraitzen du
arazoa guztien artean
konpon dadin.**



Domingo Lumbier eskolen erabilerak eztabaida sortu du herrian.

• AMAIA MUNDIÑANO

ALTASUKO DOMINGO LUMBIER
eskolen erabileraren ingu-
ruan eztabaida sortu da he-
rrian. Oraindik ez dago ezer
erabakita eskolok etorkizune-
an izanen duten erabileraren
inguruan. Fundamento Orain
taldeak dioenez, Udalak bere
ondasunen inguruan duen in-
teresa falta kezkarria da. Erai-
kina urteetan eskola izan da,
beste jarduera batzuetarako ere
erabili badute ere: euskaltegi,
bake epaitegi, haurtzaindegia eta abar. Talde-
aren aburuz, azken urteetan,
pixkakana-pixkanaka utzike-
ria eta ardura ezaren ondorioz,
narriatuz joan da eraiki-
na, eta gaur egun hondatzeko
bidean dagoela uste dute.

Udalak, HBk eta Funda-
mento Orain taldeak argi dute
Domingo Lumbier funtsezko
gaia dela Altsasuko herrigin-
tza planean, herriaren erdigu-
nean zona libre bakarra baita.
Udalaren proiektua bertan
babes ofizialeko 75 etxebizitza
altxatzea da. Etxebizitzok
erosteko zein alokatzeko as-
motan egingo lirake. Fun-
damento Orain taldeak dio,
ordea, etxebizitzon inguruan
espekulazioa egin daitekeela.

Taldeak herrian dagoen
etxebizitza beharraren azter-
keta sakona eskatzen du. Az-
terketa hori egin eta gero,
dauden beharren arabera ba-

bes ofizialeko etxebizitzaren in-
guruko proiektua egitea pro-
posatzen du.

Gauzak ez daude batere ar-
gi eta, bitartean, Fundamento
Orain taldeak eraikina beste
zerbaitetarako erabiltzea pro-
posatu du. Hainbat kultur
ekitaldi eta gizarte egitasmo
estreinatzeko aukerarik ez
dutela izan diote, lokal falta-
ren ondorioz. Beren proposa-
menak aurrera atera ahal izateko
eta Domingo Lumbier
eraikina lehengoratzeko hel-
buruarekin, besteak beste, si-
nadurak biltzen hasi dira.

→ Amaia Mundiñano

herri aldizkariak

Eduñe Elizondo

Sarako Etxola

SARAN udan zabalduko duten Etxola izene-
ko animalia parkeari eskaini dizkio **Ttipi-ttapa-**
ren azken zenbakiak bere orrialdeak: «Kattin
eta Martine Gerendiain ahizpen ekimenari
esker, joan den urtean sortutako ideia gauza-
tzen ari da pittan-pittan. Azken moldaketak
egin ondotik, udarako prest izanen dute gu-
zia: Etxola izeneko animalien parkea edo zoo-
logikoa irekiko da Saran. Ez da izanen, nos-
ki, hiri handietan ikusten den zoon gisakoa:
elefanteak, tigreak, lehoiak edo tximuak iku-
si nahi dituenak bertze nonbaitera jo behar-
ko du. Hori bai, hegazti andana bat ikusi eta
haien garrasi, ulu, kukurruku eta txioak adi-

tu ahal izanen ditu: loro exotikoak, paumak,
tamaikak eta kolore ugaritako usoak, fai-
saiak, punk itxurako oilo eta oilarrak eta ber-
tze hainbat. Hegaztiak handik eta hemendik
ekarriak dituzte dagoeneko bi hektareako lur
eremura».

Aitor Arozenak sinatu artikulua azaltzen
du parkearen asmoa nola gauzatu den: «Ani-
malioek orain arte etxean izaten zituzten, bai-
na duela urtebete zoo tiki bat osatzea gogo-
ratu zituzten. Lizarietako bidean, bi hektare-
ako herri lurra errentan hartu zioten Sarako
Herriko Etxeari eta geroztik laneak ari dira:
laharrak garbitu, luberriak atera, kaiolak

prestatu, bidea moldatu, komunak edo zerbi-
tzuak egin, eta orain etxola tiki bat eraiki-
tzen ari dira, harri xabalekin ederki apain-
dua. Etxola horretan egingen dute lan bi ahiz-
pek, bisitariei informazioa ematen eta sarre-
rak salduz. Lanean buru-belarri ari dira, par-
kea ekainaren erdialderako zabaltzeko
asmoa baitute».

«Ez dute lezeetan eta Larungo trenean ber-
tze bisitaririk espero, baina leku horietarat jo-
aten direnentzat, eguna osatzeko aukera poli-
ta eskainiko zaie Etxola zoon. Turismo bule-
goetan eta eskoletan informazioa banatuko
dute, beren eskaintzaren berri emateko».


Idazlea eta hauteskundeak

Niri goiz hauetan eta nire egu-
neroko pasioa egiten ari naizen
bitartean, jendeak gelditzen
nau kalean eta galdetzen dit:
«Xabi, eta orain zer?». Badirudi
EGUNKARIAKO zutabegilea izatea-
gatik orojakile bat izan behar
naizela edo tertuliano guztiz
ahaltu horietako bat. Munipak,
jubilatua, erosketak egitera
doazen emakume xaloak (gure
herriko emakumeak gorai-
tzean beti geldituko gara motz),
nerabé punkiak... guztiek gal-
detzen didate hauteskondeez,
eta eman beharreko botoaz.
«Eta orain zer?». Ba niputa
idea hil! Ni puta idea. Hemen ja-
rri nezake Cesare Pavese, poe-
ta italiarrak, honetaz esan zue-
na. Bainan, egia esan, ez naiz
zita hartaz oso ongi oroitzen
eta liburuak ordenagailutik ha-
mar metrora daude (erran nahi
baita Txinan edo Turkestanen
daudela, nire mugitzeko gogo
eskaxak bortizki urruntzen bai-
titu). Orduan esango dut, Chur-
chilek berak esaten zuen mo-
duan, zera, Bigarren Gerrate
Mundialean bere gobernuakide-
ekin Londresko lurrazpiko bun-
ker batean biltzen zenean, hara
sartu eta esaten omen zuen:
«Egunon» (Nicole Portmushc.
England and history. 1994) Eta
besteek erantzuten zioten:
«Berdin». Hala da. Ez da txan-
txa! Europa nazismotik salbatu
zuen gizon honek! Estadista
izugarri haundiak! «Egunon»
apal batekin hasten zituen bile-
rak! (Idazle naizen aldetik nire
jakite-maila ikaragarri haundia
da). Txorakeria bat ematen du,
begi kolpean, bainan Ferdi-
nand Schoderrek idatzitako *Eu-
ropa underproduktion politik* li-
buru miresgarrian aipatzen du
Atenaseko Periclesek ere
«Egunon» batekin hasten zi-
tuela asanbladak. Orduan ohar-
tzen gara hari fin eta tente bat
luzatua dagoela historian bar-
na, zeinak Pericles eta Chur-
chill lotzen dituen, eta urrezko
letra moldeetan izkiriaturik
duen: «egunon». Ai la ostia! Ze
polita gelditu zaidan haur Esto-
oo... zertaz ari ginen? A bai: ni-
taz! Banoa ispilu aurrera me-
mentutxo bat. Nire aurpegia
ikusi nahi dut. Gezurra edo
egia nire aurpegian isladatzen
den ikusi nahi dut. Ni naiz idaz-
lea. Idazlea naiz. Ni.

Nomadas: herri nabar baten doinu nabarrak

Joan den irailean sortu zen taldea, Tuteran, eta herrialdean bildutako kulturen doinuak jasoko dituen disko bat grabatzen ari dira

Erriberako hiriburuan sortutako Nomadas musika taldea lehen diskoa grabatzen ari da. Tuteran bildu diren kulturetako kidez osatua -ijitoak, magrebiarrak, euskaldunak eta espainiarrak-, beren lanak herri nabar baten doinu nabarrak jasoko ditu. Finean, herri kulturak uztartzen eta hurbiltzen salatu dira lanean.



Diskan entzuten den kantuetako bat. Ageria denez, Erriberako folklorean eta kulturen oso ezagunak diren pertsonaia, kolore, ohitura eta beste ongi aski agertzen ditu lan honek.

Herri nabarra

*Al zipotero los caramelos
y de la bota al alhamín
le muyen vino, vaya chandrios,
Tarambana y el Volatín.*

*Rabanadak hartu omen dio
elastika Mayoralarí
axuri jatea prestatzeko
mandarra gisa erabili.*

*El viento de hoy y el de mañana
se van trenzando con el de ayer,
somos los hilos, colores vivos,
de ser lo que queremos ser.*

*Ebro ibaian hamaika erreka,
lur honetan hainbat aztarna,
nahastz egina dugu kultura,
garen herria nabarra da.*

Juan
Antonio
Jimenez
ijitoa, Karim
Kerchik
Nomadas
taldeko
beregaria
eta Casimiro
Carbonell
ijitoa.
•
MIKEL SAIZ

menez ijitoak (gitarra eta ahotsa), Karim Kerchik Aljeriako berebera (ahotsa eta perkusioak), Javier Perez de Obanos (gaitak eta perkusioak), Miguel Tantos (tronboia eta ahotsa), Valentin Martinez (saxofoiak), Edor Zubeldia (txirula eta akordeoia), Jabier Abad (fagota), Meritxe Abad (ahotsa eta perkusioak), Javier Buruna (baxua eta saxofoia) eta Eduardo Suso (bateria eta perkusioa).

Kultura eta musika uztarketa

Erriberan, Ebro ibaiaren arrimoan, aspalditik kokatu diren kulturak nahastu dira: euskalduna, espainiarra, ijitoa eta arabiarra. Herrialde horien izana eta esana bezala, diskoaren emaitza ere nabarra ateratzen ari da: nahasmenaren eta zalantza sinbolioa, kolore zuri beltzarrea. Finean, zuritasuna ez beste guztia adierazteko aproposa den lana egiten dihardute.



Javier Perez
de Obanos:

«Hain musika ezberdina harmonikoki uztartzea lortu dugun bezala kultura horien nahasketa gizarteratu nahi genuke. Gizarateak ez ditzala jarri oraindik jartzen dituen trabak eta mugak».

Ataka gainditzeko hurbilketa

Nomadas taldearen irizpidea Jose Antonio taldekideak aspaldian idatzitako hitz hauek laburbiltzen dute: «Zuk hesiak jartzen badizkidazu, nik ez ditut saltatuko; nik atakak jartzen ez badizkidazu, hurbiltzen hasiko gara». Egiten ari diren lana definitzea zaila dela diote, baina iritzia esatera ausartu dira. Casimirok dio arrazakeria eta xenofobiatik kanpo dagoen zerbait dela. Perez de Obanosek uste du egiten ari direna «kulturen arteko musika» dela.

Egun munduko hainbat tokitan jazotzen ari diren herrien arteko gatazka eta suntsiketen kontrakoa egiten ari dira Nomadas taldekoak. Munduko lehoetako leihakumeak zabaldu eta begiratu besterik ez dago. «Diskoarekin salatu gara mezu bat bidaltzen. Juanek idatzitako hitzetan, gure helburua musika egitea da. Baina, horrezaz gain, gustatuko litzazuke horrek gizarteran isla izatea. Hain musika ezberdinak harmonikoki uztartzea lortu dugun bezala -buleria, zortzikoa edo Mediterraneoko edo Aljeriako doinuak-, kultura horien nahasketa ere gizarteratu nahi genuke. Gizarateak ez ditzala jarri gaur egun oraindik jartzen dituen trabak eta mugak, jendea baztertuz duen koloreagatik, erlijioagatik, bizitzeko eragatik edo mintzatzeko eragatik», gaineratu dute.

Uda kontzertuetarako

Espartza herriko estudioetan buru-belarri ari dira doinu eta bakoitzaren ideiak uztartzen eta behar bezala lotzen. Hala ere, oraindik ez dute erabaki diskoaren izena. Seguruena *Con trastes* delako dute, gitarrako giderra banatzen duten zatiekin konparatuta bat egin nahirik edo. Izena ez ezik, noiz kaleratuko duten ere ez dute argi. Hasiera batean uztailan Tuterako festetarako atera nahi zuten, baina seguruenik irailerako utziko dute aurkezpena. Dena dela, lana ordurako atera ez arren, lana ez zale faltako, martxoan, Korrikako ekitaldietan estrenaldia egin eta gero.



Nomadas taldeko kideak, Espartzako Sonido XXI estudioan grabatzen. • MIKEL SAIZ

Taldekide bakoitzak badu bere historia, eta hori islatu nahi izan dute grabatzen ari diren disko konpaktuan. Casimiro eta Jimenez ijitoi familiatik datorke musikarako zaletasuna, eta gitarra jotzen eta kantatzen etxean ikasi dute, euren kabuz edo lagunen festetan. «Ez naiz sekulan talde batean egon. Etxean jotzen nuen. Jabi Abadek entzun ninduen eta taldean ongi uztartuko nintzela esan zidan». Azkena izan da taldera sartzen. Errioxan jaio zen, baina hamaia urte darma Tuteran bizitzen, eta familia Erriberakoa du. Ribaforda, Buñuel eta Barillasen ditu senitartekoak. Jimenez tuterarrak ere, txikitatik abestu du, «logelan eta lagun afarietan». «Familiartean dantzatzea, abestea eta jotzea oso gurea da», azaldu du.

Nafarra ez den bakarra Karim Kerchik da; Aljeriakoa da, berebera. Orain bederatzi urte, mundua ezagutu nahirik, bere herriitik Frantziara joan zen. Baina ez zuen etsitzen,

eta Bilbon zuen anaia batengana etorri zen. Handik Tuterara jaitsi zen, 1992ko urrian, eta geroztik Erriberan dabil. Aljerian talde folkloriko batean aritzen zen, eta kontzertuak eskaintzen zituzten maiz. Musika baztertua zuen Nomadas taldekidekin batu arte. Taldeko gainontzeko kideek ere badute eskarmentua nahikoa. Perez de Obanosek aspaldirik jotzen du gaita, eta haizeko instrumentuak jotzen dituzten hiru taldekideak profesionalak dira. Miguel Tantosek hemezortzi urte besterik ez ditu, eta Euskadiko Orkestra Sinfoniko Gaztean aritzen da; Javier Abadek berriki plaza atera du Galizia-ko Sinfonikoan, eta hainbat tokitan ikasten egona da: Parisen eta Basilean esaterako. Valentin Martinez Tuterako kontserbatoriko saxofoi irakaslea da.

«Kalitate handiko lana dela uste dugu. Formakuntza ona da, oro har. Batzuk kontserbatoriora joan dira, eta bi ijitoek, Karim eta beste batzuk beren herrietako tradizioak emandako oinarri sendoa dute, musika ikasketak egin ez dituzten arren», azpimarratu du Perez de Obanos gaitariak. Hainbeste musikari eta kultura artean, denetariko hitzak daukete: berebera; ijito hizkeraz, *calo-z*, euskaraz eta gaztelaniaz. Lanaren hitz batzuk taldekideek berek sortuak dira eta besteak kantu tradizioetatik hartutakoak dira. Denen partaidetzarekin egindako lana dela na-

→ Irene Arrizurieta

Estela Welldon

Psikiatra

«Bortxa belaunaldiz belaunaldi igarotzen da»

Estela Welldon Mediku Psikiatrak emakumearen boterearen inguruko hitzaldi bat eskaini berri du Iruñean. 1988. urtean kaleratu zuen *Madre, virgen, puta. Idealización y denigración de la maternidad* liburuak ordurarte emakumeaz eta bortxaz zeuden planteamenduak erabat aldarazi zituen, eta ikuspegi berri bat zabaltu zuen.

IA 30 URTE DARAMATZA BORTXA-ren biktima diren emakumeekin lanean Welldonek eta mintzatzerakoan nabari zaio.

■ **Egia da bortxa gizonen zein emakumeen eragiten dutela?**

Bai, baina ez era berean. Lan egiten dudan ospitalean 70 urte daramatzate perbertsioak eta ekintza deliktiboak egiten dituzten pertsonen lanean, eta han ohartu nintzen gizon gehiago zeudela emakumeen baino. Bortxa gizarte guztietan eta maila sozial guztietan ematen da, baina gizonen eta emakumeen eragiten duten bortxa desberdina da. Gizonen bortxa kanpora bideratzen dute, gizartera. Emakumeek, ordea, barnera bideratzen dute, beren gorputzaren aurka: anorexia eta abulimia, edo autolesioak.

■ **Zergatik bideratzen dute gizonen bortxa kanpora eta emakumeen barnera?**

Arrazoia konplexua da eta faktore anitzekoa. Gizarteak genero bakoitzari egokitzen dion rola, botere banaketa... Sexu organoekin ere badu zerikusia. Gizonen kanpoko sexu organoak dituzte. Emakumeek, aldiz, barrukoak, eta gorputzean banatuagoak.

■ **Nola pasatzen da emakume bat bortxaren biktima izatetik eragile izatera?**

Bortxaren arazoa ziklo batean kokatzen dut nik. Bai emakume zehatz horren bizitza osoan, bai eta familia hortako belaunaldi desberdinen jarraitzean ere.

Txikitan tratatu txarrak eta gehiegikeriak pairatu dituzten neskek antzeko prozesuak jarraitzen dituzte. Hasieran beren gorputza gorrotatzen hasten dira. Erasoen autoestima eta balorazioa arras koloka uzten diete. Nerabatasuna heltzen denean beraiei eragiten zieten mina eragiten diete orain beren gorputzei: anorexia eta abulimia kasuak sor daitezke, eta autolesioak eragiten dituzte, erretak eta ebakiak gehienetan.

Emakume egiten direnean eta bikote bat hartzen dutenean egoera sadomasokistak agertzen dira. Patologia hauetan, nerabetasunetik senarra edo bikotea lesionatzera pasatzen da emakumea. Emakumeetan promiskuitatea prostituzioara edo sadomasokismora desbideratzen da.

■ **Zer egiten du emakumeak egoera horretatik ihes egiteko?**

Egoera honen aurrean emakumeak suizidioaren desbiderapena edo biziaren desbiderapena har dezake, hau da, ama izan. Emakumeak bakardadeari, maitasun faltari aurre egiten

«Emakumeak bakardadeari, maitasun faltari aurre egiteko, ama izatearen aukera hartzen du anitzetan. Berak duen botere bakarra modu biologikoan ikusten du»



OSKAR MONTERO

teko, ama izatearen aukera hartzen du anitzetan. Berak duen botere bakarra modu biologikoan ikusten du, ama izatearen ahalmenean; alegia. Haurdunaldia eta amatasuna desberdinak dira. Hemendik eratoritzen dira hainbat arazo: umea zure egoera latzaren aurrean ihesbide gisa hartzen duzunean, mutil bat nahi denean eta neska ateratzen denean (inestu kasuak gertatzen dira maiz), hil berri den umearen ordeko gisa bertze bat izaten denean...

■ **Horrek emakumearen egoera okertzea dakar?**

Jakina, emakumeak haurdunaldian nolabaiteko errespetua izaten du. Behin umea edukita, egoera berdinerara bueltatzen da, baina ardura askoz handiagoekin.

Gizonak esparru publikora aterabidea duen bitartean, emakumea etxeko esparrura mugatzen da, batez ere ama egiten denean. Ama etxean ba-

karrik gelditzen denean, bera da boteretsua eta umea, berriz, bere menpe dagoena. Amak bere barnean duen ezintasuna nola edo hala askatu behar du, eta bere mendekua ahulengana bideratzen du: haurraren gana. Gainera, anitzetan amak umea bere gorputzaren luzapen bat bezala ikusten du, eta bere burua lesionatzeko umeak jasaten du bortxa.

■ **Zer egin daiteke egoera hauen aurrean?**

Laguntza emateko, ezinbertzeko gauza da egoera hau onartzea. Emakumeek zein egoerei aurre egin beharko dieten aurreikusitako behar dute prebentzio moduan. Hasiera batean feministak emakumearen patologizazioaren aurka agertu ziren, baina gero diagnostiko bat egin behar zela onartu zuten, eta emakumea berez biktima dela eta ez berrerroa. Amatasunaren goraiatzak ezinezkotzat jotzen zuen ama bat umearen erasotzailea izan zite-

soslaia

Estela Welldon Argentinan sortua da, eta azkeneko 30 urteak Britainia Handian eman ditu. Lanbidez Mediku Psikiatra da, eta 28 urte daramatza Londresko Portman Klinikari lan egiten.

Mundu mailako hainbat erakundetako kide, emakume taldeen zuzendaritzan esperientzia paregabea eskuratu du. Horrek emakumearen psikologian eta portaeran sakontzeko aukera handiak eman dizkio.

Ikerketa hauetan emakumearen rola desberdinetan (alaba, ama, emaztea...) ematen diren soforimendu egoeren gakoak topatzea egokitu zaio. Argitalpen eta entsegu ugarien egilea da. Bereiziki aipa daitezke *Generoa eta Boterea*, *Mitua eta amatasuna*, *Bortxa femeninoa etxeko esparruan* eta *Ama, birgina, puta. Amatasunaren idealizazioa eta denigratioa* -oso eztabaidatua izan da-.

keenik, baina egoera onartzea aurrerapauso garrantzitsua izan zen.

■ **Gauzak aldatzen ari dira?**

Bai, gauzak hobera doaz. 60ko hamarkadan tratatu txarrak jasaten zituzten emakumeek ez zuten ez polizia ez legearen babesik. Aukera bakarra etxe berezietara eramatea zen, baina berehala ikusi zen emakumeek gizon berberekin itzultzen zirela, edo bertze bat hartuta ere, egoera berdinak errepikatzen zirela. Arazoa gizartearena zen, beraz.

Bortxa belaunaldiz belaunaldi igarotzen da. Oinarritzko Gizarte Zerbitzuetatik ez da oraindik emakumearen ikuspegia eta egoera kontuan hartzen. Emakume horien seme-alabena baino ez da ikusten. Gauzak aldatzen hasi dira, eta, emakumearen ikuspegia ulertzen hasi garenetik, berarekiko jarrerak ere aldatzen hasi dira.

→ Gorka Ovejero



Nafar Kronika

Kike Diez de Ultzurrun

Egun seinalatua

Egun seinalatua, bai, etziko. Ez da duda izpirik ere. Norentzat izanen da, ordea, seinalatua? Ba, inkestei kasu egitera, ez UPN Diputaziotik kanpo ikusi nahi dugunontzat behintzat. UPNren irria gainontzekoon atsekabea izanen da. Hala ere, aitortu behar da talde horren irribarrea ez dela gauza berria, aspaldikoa baizik. Eskuindarrak harroputz eta bereusteko dabil-tza, baita lasaikara ere, gainontzeko taldeak aisa garaituko dituztelakoan. Hala atera ditzaketen botuei gainera, Alderdi Sozialistak eskura ditzakeenak ere erantsi behar zaizkie. Izan ere, sozialisten artean, badira aunitz eta aunitz UPNri laguntza ematen segitu nahi dutenak, horien artean UGTko asko eta asko. Eroso daude UPNen gerizapean, ongi joan zaie, eta, azken urte luzeotan ederki moldatu dira elkarren artean. Hortaz, zertarako aldatu, hau da, zergatik hautsi eskuindarrekin Nafarroan izan duten elkarlan hori? E-mail-tza onak erdietsi dituzte (sosak barne) eta uzkur dabil-tza egoera egonkor eta gozoa hankazgora dezakeen abenturari lotzeko. Honenbertzez, sozialistek aukera izanik ere, hiruko edo lau-ko Diputazioa berritzeko, lehendabizi alderdi barneko UPNzaleak isilarazi beharko lituzkete, bai Nafarroako antolamenduan daudenak, bai Madrilen daudenak. Lizarbek gainera, biga bortzetan, errana eta idatzia du ez duela EHkoekin, inola ere, deus hitzartuko. Gauzak horrela, sozialistena ez bertze inorena izanen da errua. Dena dela, utz diezaiogun itxaropenari zirrikituren bat, den mendrena izanik ere. Beharko utzi, zer erremedio.

gure aukerak

KONTZERTUAK

- **Barañain:** Joseba Tapiak eta Koldo Izagirrek 'Apoaren edertasuna' aurkeztuko dute datorren asteazkenean, 20:30etan, Udaletxeko Ekin-tza Anitzetarako aretoan.
- **Iruñea:** Duncan Dhu taldeak kontzertua eskainiko du gaur Gayarre antzokian.
- **Iruñea:** Rosanak kontzertua eskainiko du bihar zezenplazan, 21:30etan.
- **Lekunberri:** Lifek eta Lisabok joko dute bihar gaztetxean, 24:00etan.
- **Iruñea:** Euskadiko Orkestra Sinfonikoak kontzertua eskainiko du etzidamu, 20:00etan, Gaiarre Antzokian. Asteartean berriz, Brodsky laukoteak Fernando Rematxa omenduko du ordu eta toki berean.

ERAKUSKETAK

- **Iruñea:** Martin Alzueta eta Jokin Gartzandiaren margoak ikus daitezke Iruñazahar euskaltegian (Errekoletak 16, behe) ekainaren 28a arte.
- **Lizarra:** Rafael de Penagos lanak ikusteko aukera dago Gustavo de Maeztu museoan hilaren 27a arte.

ANTZERKIA

- **Iruñea:** Bihar eta etzi Tricicle hirukoteak Rosinifen *El barbero de Sevilla* lana taularatu-ko du 20:00etan, Gayarre antzokian.

BESTELAKOAK

- **Zizur Nagusia:** Kultur Etxeak udako hainbat ikastaro antolatu ditu 4-6, eta 7-9 urte bitarteko haurrentzako. Lau eta sei urtekoentzako ikastaro hauek antolatu dituzte hastapenak euskaraz zein gaztelaniaz: igeriketa, plastika eta irristaketan. Zazpi eta

berderatzi urte bitartekoek, berriz, aurreko ikastaroez gain, pilotan aritzeko aukera izanen dute. Hauek ere bi hizkuntzatan izanen dira.


- **Mutilagoiti:** Nagiko Show dantza taldearen emanaldia izanen da gaur, 24:00etan, Kultur Etxean.
- **Iruñea:** Umeentzako Antzerki Testuen VIII. Lehiaketa an-

tolatu du Udalak. Parte har-taileek hemezortzi urtez goiti-koak behar dute izan. Gehie-nez hiru testu aurkez daitez-ke, euskaraz zein gaztelaniaz. Lanak Nafarroako Antzerki Eskolara igorri behar dira (San Agustin kalea, 5. 31001. Iruñea) abuztuaren 1a baino lehenago. 948-22-92-39/21-03-60.

► **Lakuntza:** Aisialdirako begi-rale izateko ikastaroa antola-tu du Sakanako Mankomuni-tateak euskaraz irailaren 6tik 30era, astelehenetik ostirale-ra; eta urriko bost larunbate-tan. Izena ekainaren 18a bai-no lehen eman behar da 948-46-48-40 telefonora deituta. Ikastaroak 20.000 pezeta ba-llo du.

Arestiren liburutegia

Castelao nos



Deixa raices na Terra. Volverá.

Herrian sustraiak uzten ditu. Itzuli egingen da.